Tolosaldea udalak garatzen

Tolosaldea Garatzen
Apatta Industrialdea, 1
20400 Tolosa

+34 943 65 45 01
tolosaldeagaratzen.eus

TOLOSALDEAN ESKOLA AGENDA 2030 DINAMIZATZEKO AHOLKULARITZA TEKNIKOAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA PLEGU TEKNIKOAK

1. AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Eskola Agenda 2030, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Berritzegune Nagusiaren bitartez, ingurumen hezkuntza sustatzen duen programa da. Ikastetxeek garapen iraunkorraren eta eskolako kalitatearen alde udalekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzea da programaren helburua.

Programan parte hartu nahi duten ikastetxeek Eskola Agenda 2030ekiko konpromisoa adierazten duen akta sinatu behar dute. Hortik abiatuta, ikastetxe bakoitzak (Tolosaldearen kasuan, eskualdeko ikastetxeak) bi ikasturtez behin aztergai izango duen gaia aukeratzen du (garapen jasangarriko helburuei erreparatuz) eta, material didaktikoaren eta hainbat jardueraren bidez, hautatutako gaiaren diagnostikoa egiten dute ikasleek, hiri ikuspuntu iraunkorretik begiratuta.

Ondoren, alkatearen eta udalbatzako ordezkarien aurrean ikasturtean egindako diagnosi lana aurkezten da, garapen iraunkorraren aldeko konpromisoak hartzen dira eta udalari eskatzen zaio antzemandako arazoak konpontzeko neurriak har ditzala.

Eta azkenik, Eskola Agenda 2030 programan parte hartzen duten Tolosaldeko ikastetxeen arteko Foroa antolatzen da, ikasturte hortako aldagaiaren inguruan egindako hausnarketa guztion artean elkarbanatzeko.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE CONSULTORIA TÉCNICA PARA LA DINAMIZACIÓN DE LA AGENDA 2030 ESCOLAR TOLOSALDEA

1. ANTECEDENTES Y JUSTIFICACIÓN

La Agenda 2030 Escolar es un programa promovido por el departamento de Educación del Gobierno Vasco, a través de Berritzegune Nagusia. El objetivo del programa es la promoción del compromiso por el desarrollo sostenible de los centros educativos en colaboración con los ayuntamientos.

Los centros educativos que forman parte del programa firman un acta de compromiso con la Agenda 2030 Escolar. Partiendo de ello, cada centro (en el caso de Tolosaldea, los centros educativos de la comarca) elige la temática a desarrollar durante los siguientes dos años (asociada a los objetivos de desarrollo sostenible) y mediante el material didáctico que se genera ad hoc y actividades diseñadas, el alumnado realiza el diagnóstico local sobre el tema elegido.

Posteriormente, el alumnado presenta ante la corporación municipal el trabajo de diagnóstico realizado, los compromisos adquiridos por el centro por el desarrollo sostenible y las medidas que solicita tomar al ayuntamiento para solucionar los problemas que han detectado.

Finalmente, se celebran el foro comarcal entre todos los colegios que participan en el programa de Agenda 2030 Escolar para compartir la reflexión acerca de la temática elegida de ese año.

Tolosaldea Garatzenek 13 urte daramatza Tolosaldeko Eskola Agenda 2030 programan parte hartzen duten ikastetxeak dauden udalekin batera koordinazio lanak egiten eta programa dinamizatzeko kanpo aholkularitza teknikoa kontratatzen da.

Hori horrela, baldintza teknikoen plegu honen bidez proposatzen den kontratazioaren helburua da, Eskola Agenda 2030 Programa hori aurrera eramateko laguntza teknikoa kontratatzea; izan ere, Udalak ez du giza baliabide nahikorik zerbitzu hori behar bezala aurrera eramateko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza agiri honen xedea Tolosaldeko Eskola Agenda 2030 programa garatzeko laguntza teknikoa emango duen zerbitzua 2025-2026 ikasturterako (gehi beste bi urtez luzagarria) kontratatzea da, Tolosaldeko ikastetxeetako Eskola Agenda 2030 proiektua osatzen duten jarduerak dinamizatzeko.

Hartzaileak Tolosaldeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeak izango dira.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena ikasturte batekoa izango da, 2025eko irailaren 20tik 2026ko ekainaren 30 arte izango da, beste bi urtez (2) luzagarria, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baino BI HILABETE lehenagotik bi aldeek adierazten badute.

Kontratuaren xede diren lanak gauzatzeko epea kontratuaren ikasturte bakoitzeko irailaren 20tik ekainaren 30era izango da.

4. AHOLKULARITZAREN JARDUERA-PLANA

Enpresek, memoria teknikoaren barruan 2025-2026 ikasturterako jarduketa-proposamen bat aurkeztu beharko dute. Proposamen horrek honako eskema honi jarraituko dio, eta

Tolosaldea Garatzen lleva 13 años coordinando la Agenda 2030 Escolar en colaboración con los ayuntamientos de los centros educativos participantes y la dinamización se realiza a través de una consultora técnica externa.

Por consiguiente, el objetivo de este pliego de prescripciones técnicas es la contratación de la ayuda técnica para desarrollar el programa de la Agenda 2030 Escolar por no tener recursos humanos suficientes para poder ofrecer el servicio.

2. OBJETO DEL CONTRATO

Constituye el objeto del presente pliego de condiciones la contratación de una empresa consultora para los trabajos de dinamización del programa Agenda 2030 Escolar en los colegios que participan en la Agenda 2030 Escolar para el curso 2025-2026 (prorrogable otros dos años)

Los destinatarios serán los centros escolares de Tolosaldea de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional.

3. DURACIÓN DEL CONTRATO

El contrato que dura un año y comenzará el 20 de septiembre de 2025 y finalizará el 30 de junio de 2026, pudiendo prorrogarse otros dos cursos más, siempre que las dos partes lo acuerden, por escrito, con una antelación mínima de dos meses.

El plazo para la realización de los trabajos objeto de contrato será desde el 20 de septiembre hasta el 30 de junio de cada año escolar.

4. PLAN DE ACTUACIÓN

Las empresas que deseen participar en este concurso deberán presentar una memoria de

programaren bilakaera eta egutegira egokituko ditu Eskolako 2030 Agenda osatzen duten fase ezberdinak.

Halaber, esleipendunak Tolosaldea Garatzen-i eman beharko dio proiektuaren amaierako memoria bat, dagokion ikasturtea amaitu eta gehienez hilabeteko epean.

Hori horrela izanik, esleipendunak hurrengo faseetako bakoitza bete beharko du ematen dituen ikasturteetako bakoitzean eta urtero hautatutako ingurumen-aldagaiari dagokionez.

1. **Prozesuaren antolaketa:**

Aholkularitza teknikoa arduratuko da deialdia eta gai-zerrendak idazteaz eta bidaltzeaz, bileretako aktak jasotzeaz, baita-koordinazio-bilerak dinamizatu eta moderatzeaz ere. Bilera horiek Berritzeguneak ezartzen duen lan-kronogramari jarraituz programatuko dira.

Tolosaldea Garatzen eta udalekin jarraipen bilerak egiteko ardura izango du, udalak Eskola Agenda 2030 programan inplikatuz. Gainera, proiektu honi buruzko informazioa zabalduko du (weborrian, prentsan, buletinean...).

2. **Motibazio eta sensibilizazio fasea:**

Tolosaldeko Eskola Agenda 2030 programari atxikitako ikastetxeek 2025-2026 ikasturterako adostutako gaiaren inguruko sentsibilizazio eta motibazio dinamikak eta baliabideak proposatu eta sustatuko ditu.

Hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako hainbat hitzaldi/solasaldi antolatuko ditu aukeratutako gaiaren inguruan eta Tolosaldea Garatzenekin koordinatuko ditu edukiak eta datak.

actuación. Esta propuesta se ajustará al siguiente esquema y adaptará a la evolución y calendario del programa de las diferentes fases que conforman la Agenda 2030 Escolar.

La empresa adjudicataria deberá entregar a Tolosaldea Garatzen una memoria final del proyecto en el plazo máximo de un mes desde la finalización del curso escolar correspondiente.

La empresa adjudicataria deberá cumplimentar cada una de las siguientes fases en cada uno de los cursos que imparte y cada año respecto a la variable ambiental seleccionada.

1. **Organización del proceso:**

La asesoría técnica se encargará de redactar y remitir las convocatorias y órdenes del día, recoger las actas de las reuniones, así como dinamizar y moderar las reuniones de coordinación. Estas reuniones se programarán siguiendo el cronograma de trabajo que establezca Berritzegune.

Organizará reuniones de seguimiento con Tolosaldea Garatzen y los ayuntamientos para promover su implicación en el programa Agenda 2030 Escolar. Además, se encarga de difundir la información sobre el proyecto (web, prensa, boletín, etc.)

2. **Motivación y sensibilización:**

Propondrá y promoverá dinámicas y recursos de sensibilización y motivación en torno a la variable ambiental para los cursos 2025-2026 acordada por los centros educativos adheridos al programa Agenda 2030 Escolar de Tolosaldea.

Además, organizará charlas/sesiones relacionadas con la temática elegida dirigidas a la comunidad educativa de forma coordinada con Tolosaldea Garatzen.

Tolosaldea Garatzen
Apatta Industrialdea, 1
20400 Tolosa

+34 943 65 45 01
tolosaldeagaratzen.eus

3. Diagnostiko eta helburuak:	**3. Diagnóstico y objetivos**
Tolosaldeko Iraunkortasun Diagnostikoaren laburpena egingo du aukeratutako gaiaren inguruan, aurkezpen erraz, atsegin eta didaktiko baten bidez, ikasle parte-hartzaileen adinari egokituta eta metodologia erakargarriak erabiliz.	Elaborará un resumen del Diagnóstico de Sostenibilidad de Tolosaldea en torno al tema seleccionado en forma de una presentación sencilla, amena y didáctica, adecuada a la edad del alumnado participante y utilizando metodologías atractivas.
Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek diagnosi alternatibo bat egin dezaten “material ereduak” prestatuko ditu. Horretarako, galdetegiak, datu-bilketarako taulak eta abar erabiliko dira. Horiek ibilaldietan, bisitaldietan, inkestetan, eztabaidatan eta abarretan erabiliko dira.	Elaborará unos “materiales tipo” para la elaboración del diagnóstico alternativo por el alumnado de los centros participantes, utilizando al efecto unos cuestionarios, tablas de recogida de datos, etc. que serán utilizados en los itinerarios, visitas, encuestas, debates, etc.
Berritzegune Nagusiak garatutako material didaktikoak ikastetxeko Ingurumen batzordeen esku jarri eta banatuko ditu, Berrikuntzako edo kurrikulum Integraziorako ardatzaren inguruan.	Distribuirá y pondrá los materiales didácticos del servicio Berritzegune Nagusia en manos de las comisiones de medio ambiente de los centros escolares, acerca del eje de Renovación o Integración Curricular.
Ibilbideak edo bisitak prestatuko ditu udal ekipamendu eta guneetara aldagai zehatzari buruzko udal diagnostikoko datuak ezagutu eta ondorioak atera ahal izateko.	Preparará rutas o visitas a los equipamientos y espacios municipales para conocer y extraer conclusiones del diagnóstico municipal sobre la temática elegida.
Ikasturte edo heziketa-ziklo bakoitzeko berariazko material didaktikoa sortuko du, ikasleek udal-diagnostiko alternatiboa egin dezaten. Metodologia esperimental eta praktikoa erabiliko da, behaketetan, neurketetan, galdetegietan, etabarretan onarritutakoa.	Creará material específico para cada curso o ciclo formativo, con el fin de que el alumnado realice un diagnóstico municipal alternativo. En este material se utilizará una metodología experimental y práctica basada en observaciones, mediciones, cuestionarios, etc.
Udalerriko diagnostikoa egiteko materialak zein gainontzeko baliabide didaktiko guztiak, on-line plataformen bidez jarriko dira ikastetxeen esku, modu erosan jaso ahal izateko eta ikasturte guztian eskuragarri egon ahal izateko.	Tanto los materiales de diagnóstico del municipio como el resto de los recursos didácticos se pondrán a disposición de los centros a través de plataformas online para ser recogidos de forma cómoda y estén disponibles durante todo el curso escolar.
Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleen datu bilketa eta diagnosi alternatiboa koordinatuko ditu, eta amaierako txostena idatziko du. Udalerriko datuekin eta errealitatearekin alderatuko ditu.	Coordinará la recogida de datos y el diagnóstico alternativo del alumnado de los Centros participantes, y redactará el informe final. Los comparará con los datos y la realidad del municipio.
4. Jarduketa proposamena:	

Hautatuko Ingurumen aldagai bereizgarriari dagokionez, Udalaren ekintza planak, garapen iraunkor komunitariorako proposamenak, jardunbide egokiak edo dauden esperientziak, mundu mailako datuak eta abar ezagutu beharko dira.

Lehen aipatu diren materialak eta dokumentazio bilduko ditu, eta ikasleen adinera egokituko ditu, ondoren, Berritzegune Nagusiak eskaintzen dituen materialekin batera, ikastetxe bakoitzeko barruko lana dinamizatzeaz arduratzen direnei eskaintzeko. Era berean, arduradun horien lana koordinatu eta lagunduko du.

5. Jarduerak eta Esku Hartze Plana:

Aztertutako Ingurumen aldagai bereizgarriaren inguruko jarduerak sustatu eta antolatuko ditu, Eskola Agenda 2030 prozesuan parte hartzen duen hezkuntza ziklo bakoitzera egokituta.

Ikastetxea eta udalaren arteko Udal Foroak antolatzeko ardura izango du eta ikastetxe bat baino gehiago dituen udalerrietan, Eskola arteko foroak antolatuko ditu.

Lehen ikasturtean dagokion Ingurumen aldagaiari buruz landutako konpromisoak Esku Hartze Plan batean idatziko ditu ikastetxeak, bigarren ikasturtean exekutatuko duena, eta bigarren ikasturte horretan konpromiso horiek ekintza bihurtzeko, eta eskualdeko eragileekin lankidetzan aritzeko baliabideak emateko ardura izango du.

Ikasturte amaieran, aztertutako Ingurumen Aldagai bereizgarriaren inguruan ikastetxeek landutakoa azalerazteko eta eskualdetasuna sustatzeko Eskola Agenda 2030 Tolosaldeko Eskolarteko Topaketa antolatu, koordinatu eta dinamizatuko ditu.

6. Komunikazioa:

4. Propuestas de actuación:

En lo que se refiere a la variable medioambiental característica elegida, se deberá tener conocimiento de los planes de acción del Ayuntamiento, las propuestas de desarrollo sostenible comunitario, las buenas prácticas o las experiencias existentes, los datos a nivel mundial existentes, etc.

Recopilará y adaptará a la edad del alumnado y a las visitas, materiales y documentación que elabore los aspectos antes reseñados para ofrecerlos, conjuntamente con los materiales que ofrece Berritzegune Nagusia, a las personas encargadas de la dinamización del trabajo interno de cada centro, a quienes coordinará y sostendrá en su labor.

5. Acciones y Plan de Intervención

Promoverá y organizará las actividades con relación a la variable medioambiental característica elegida, adecuándolas a cada ciclo educativo que participa en el proceso de la Agenda 2030 Escolar.

Organizará los foros municipales entre el centro y el ayuntamiento y en los municipios con más de un centro educativo, se organizarán foros interescolares.

Con los compromisos adquiridos por el centro educativo en relación a la temática elegida por los centros durante el primer curso se redactará un plan de intervención que se pondrá en marcha el segundo curso y la empresa adjudicataria tendrá la responsabilidad de facilitar que esos compromisos se conviertan en acciones y se coordinen con otros agentes de la comarca para ello.

Al finalizar el curso, con el objetivo de difundir el trabajo realizado y para promover el espíritu comarcal, la empresa adjudicataria se encargará de organizar, coordinar y dinamizar el Foro Interescolar Eskola Agenda 2030 de Tolosaldea.

Informazio-bide desberdinak erabiliz (Ingurumen boletinak, Eskola-aldizkariak, Agenda 2030en webgunean, udaleko aldizkariak, prentsa eta abar) proiektuaren hasieraren berri emango da, eta baita garapenaren berri ere, gutxienez hiru hilabetez behin.

Une oro prozesuaren garapenaren inguruan informatuta edukiko ditu Ingurumen koordinazio taldea eta Berritzegune Nagusia.

Diagnosia, ekintza-proposamenak eta azkenean hautatutako adierazleak laburpen-agiri batean aurkeztuko dizkio udal gobernu bakoitzari. Gainera, hala eskatuz gero, bileratan parte hartuko du eta egindakoaren eta eskola diagnosi alternatiboaren edukia komunikabide desberdinetan zabalduko du, lehenengo atalean zehazten denari jarraiki.

7. Ebaluazioa:

Sei hilabete ondoren, hautatuko ekintza-planen inplementazioa/betetze maila kualitatiboki eta kuantitatiboki egiaztatu eta neurtuko ditu, bai orokorrean eta baita parte hartzen duen ikastetxe bakoitzaren kudeaketa-planari dagokionez ere.

8. KONPROMISO OROKORRAK

Prozesuan zehar dinamizatzaile bat mantentzea. Eskura izango ditu beharrezkoak diren bitarteko tekniko eta material guztiak; horien artean, telefonoa, helbide elektroniko propioa eta beharrezkoak diren garraio pertsonalerako bitartekoak (ez kolektiboak).

Lankidetza estuan aritzea Tolosako udaleko Eskola Agenda 2030 dinamizatzailearekin, Berritzegune Nagusiko langileekin eta parte hartzen duten ikastetxeetako arduradunekin.

6. Comunicación:

Al menos cada tres meses, se informará del comienzo del proyecto, así como de su desarrollo, utilizando diversos medios (revistas medioambientales, revistas escolares, revistas de cada centro escolar, página web de la Agenda 2030, revistas municipales, prensa, etc.).

Mantendrá informados en todo momento acerca del desarrollo del proceso al Servicio de Medio Ambiente y a Berritze Nagusia.

Presentará al gobierno municipal, en un documento-resumen, el diagnóstico, las propuestas de acción y los indicadores finalmente elegidos. Además, en caso de que se le requiera, participará en las reuniones y difundirá estos eventos y el contenido propio del diagnóstico escolar alternativo en los distintos medios de comunicación, siguiendo lo especificado en el primer apartado.

7. Evaluación:

Al cabo de un periodo de seis meses, comprobará y medirá cualitativa y cuantitativamente los indicadores seleccionados y la ejecución de las propuestas de acción seleccionadas, tanto a niveles generales como respecto a los Planes de gestión de cada centro participante.

8. COMPROMISOS GENERALES

Designar y mantener en el proceso una persona encargada de dichas tareas, así como de todos los medios técnicos y materiales de que disponga, entre los que contará con teléfono, telefax, una dirección de correo electrónico propia y los medios de locomoción personal adecuados que precise (no de grupo).

Colaborar estrechamente con el personal de Berritzegune Nagusia así como con la persona dinamizadora de la Agenda 2030 Escolar del ayuntamiento de Tolosa y las personas responsables de los centros participantes.

Agiriak, jarduerak, materialak eta abar parte hartzaileen adinera egokitutakoak izango dira, baita hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleekin egokitutakoak ere.

Proiektu honetarako berariaz sortutako materialak eta dokumentuak Tolosaldea Garatzen-en esku geratuko dira, formatu editagarrian eta dagokion euskarri digitalean, Tolosaldea Garatzenek hobekien deritzon moduan etorkizunean erabiltzeko aukera edukiaz.

9. IKASTETXE PARTEHARTZAILEAK

Adunako Herri Eskola HH-LH (Aduna)
Zumadi Ikastetxea HH-LH (Amezketa)
Anoetako Ikastola HH-LH-DBH (Anoeta)
Pello Errota herri Ikastetxea HH-LH (Asteasu)
Muñagorri Herri Ikastetxea HH-LH (Berastegi)
Uzturpe Ikastola HH-LH-DBH (Ibarra)
Irurako Ikastola HH-LH (Irura)
Fleming Herri Ikastetxea HH-LH (Villabona)
Zubimusu Ikastola HH-LH-DBH (Villabona)
Erniobea Institutua (Villabona)
Zubimusu Ikastola HH-LH (Zizurkil)
P.M.Otaño Herri Ikastetxea HH-LH (Zizurkil)
IES Fraisoro Eskola Lanbide Heziketa (Zizurkil)

10. DATUEN BABESA

Hornitzaileak datuen babeserako legearekin bat datozen neurri teknikoak eta logistikoak ezartzen dituela eta plegu administratiboetan agertzen diren datuen babeserako neurriak kunplitzen dituela bermatu beharko du.

Los documentos, actividades, materiales, etc. serán adecuados a la edad de las personas participantes, así como al alumnado con necesidades educativas especiales.

Los materiales y documentos creados específicamente para este proyecto quedarán a disposición de Tolosaldea Garatzen, en formato editable y soporte digital correspondiente, con la posibilidad de utilizarlos en el futuro como mejor considere Tolosaldea Garatzen.

9. COLEGIOS PARTICIPANTES

Adunako Herri Eskola HH-LH (Aduna)
Zumadi Ikastetxea HH-LH (Amezketa)
Anoetako Ikastola HH-LH-DBH (Anoeta)
Pello Errota herri Ikastetxea HH-LH (Asteasu)
Muñagorri Herri Ikastetxea HH-LH (Berastegi)
Uzturpe Ikastola HH-LH-DBH (Ibarra)
Irurako Ikastola HH-LH (Irura)
Fleming Herri Ikastetxea HH-LH (Villabona)
Zubimusu Ikastola HH-LH-DBH (Villabona)
Erniobea Institutua (Villabona)
Zubimusu Ikastola HH-LH (Zizurkil)
P.M.Otaño Herri Ikastetxea HH-LH (Zizurkil)
IES Fraisoro Eskola Lanbide Heziketa (Zizurkil)

10. PROTECCION DE DATOS

La empresa adjudicataria deberá garantizar que se toman las medidas técnicas y logísticas necesarias para cumplir con la ley de protección de datos, así como las medidas que se exigen en los pliegos administrativos.